

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, GIPUZKOAKO PARKETXE SAREA FUNDAZIOAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2017.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen joan den ekainaren 4an Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren fiskalizazio txostena, 2017ko ekitaldikoa.

Urteko kontuei dagokienez, HKEEk aldeko iritzia eman du, nahiz adierazi duen Egoeraren Balantzeko “Ibilgetua” eta “Ondare garbia” epigrafeek ez dituztela jasotzen lehenagoko ekitaldietan jasotako ondasunen doako lagapenak eta honenbestez, ez dago haien baloraziorik.

Gainera, ondorioztatu du Fundazioak zuzentasunez **bete duela** 2017ko ekitaldian ekonomia eta finantzaren jarduera arautu duen **lege arautegia**, nahiz unean uneko akatsak azaleratu diren Kontratazio alorrean, izan ere bi kontratu publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez esleitu dira beste esleipen-molde bat erabili beharrean, eta beste kontratu bat egikaritu da aurreikusitako zenbatekoa gaindituta.